

HITZAURRE GISA

Jose Luis Alvarez Enparantza
«Txillardegi»

Eskuetan duzun **Bat 28** hau ez da izan orainarteko aleen antzekoa. Desberdina da bere egituraz eta bere mamiaz.

Eta, nolabait, gaurko ale honetan iheki monografikoa osatu dugula esan genezake.

Hizkuntz ezaguera eta erabilera tasen inguruko datoak ugaldu ahala, eta estatistikak findu eta taxututa dauzkagun heinean, gero eta tinkoago atera ditzakegu ondorioak, eta gero eta zuhurkiago geroari buruzko prospekzioak eta proiektuak egin.

Abiaburua, nolana ere, **Soziolinguistika Matematikoaren** oinarrietan eta teorian finkatu behar da. Eta honek, ezinbestean, **gizarte elebidunen teoriara** eramaten gaitu.

Ale honetan bi puntu nagusi horiek azaltzen dira.

Alde batetik, alderdi enpirikoa, **Olatz Altuna** gure lankideare eskutik, iazko kale-erabilpenaren neurketen berri zehatza ematen zaigu.

Euskal Herriko hizkuntz errealitatea ongi erakusten duten dato enpiriko hauek, behar-beharrezko abiapuntua dira, bai gaurko gure egoera xeheki ezagutzeko, bai geroari buruzko edozein plangintza edo glotopolitika zentzuz eta buruz proposatzeko ere.

1997ko azaroan bildutako dato "fresko" horiek (orain dela urtebetekoak) merezi dute iruzkinik eta ikerketarik. Euskal Herrian %84,8ri dagozkio. Ez baita hutsaren hurrena!

Iker-alortzat Euskal Herria bere osotasunean burututako inkesta zabal honen ondorioz, gauza bat esan daiteke eta esan behar da: gure herria jabetu egin dela bere hizkuntz arazoaren garrantziaz eta izariaz. Eta jabeakuntza horri datxekion lehenengo emaitza esperantzarrien zantzuak, oraingoz apurrak izan arren, nabaritzen hasiak direla jadanik.

Euskal Herriko kaleetan eta, oro har, estatistikoki, 100 hiztun-taldetatik 13tan euskaraz ari direla jakitea, gutxitxo dela pentsa dezake arazoa matematikoki aztertu ez duenak. Talderik gehien gehienak (%87), esango digu, eta burubidez esango, erdaraz ari dira gaur egun gure herrian. Eta alde honetatik garaitzapena urrun dugula garbi dagoela. Baina, teoria matematikoak aisa erakusten duenez, gure herrian gaur, nolahala, erdaraz denek dakitela kontuan harturik (euskaraz dakigunok %22,5 besterik ez gara), euskaraz dakigunok erdaraz **ere** badakigula kontua harturik; eta, hitz batez, erdaraz mintzatzea (gaztelaniaz edo frantsesez) gaur egun beti posible dela jakinik, halaz guztiz ere talde posible guztien artean %13tan euskara erabiltzen dela neurtu izanak, oso hizkuntz kontzientzia eta nahi-maila gorak erakusten ditu.

Hori bakarrik ez.

Azkeneko urte hauetan, eta irizpide berberak erabiliz, hiru kale-neurketa burutu direnez gero, alderaketak egin daitezke, joerak somatu, kurbak marraztu; eta garbi esanda, norantz ari garen zehazki ezagutu.

Eta irakurketa hirukoitz horren ondorioak ez dira zalantzazkoak: erabilpena, estatistikoki posible den neurrian, gora doa.

Eskualde guztietan gora? Olatz Altunaren izkribua baliatuz, eta 734 ikerketa-bikotek egindako lan eskergari esker, hau erantzun dezakegu: Iparraldean salbu, euskararen erabilpena gora doa.

Beste ohar garrantzitsu bat: erabilpenaren hakzundea azkarragoa dela gazteen artean, zaharren artean baino. Euskararen pizkundea askoz irmokiago itsatsi dela euskal gazterian, belaun zaharrean baino.

Eta bide beretik datorren hirugarren ohar hau: maizago jotzen dela euskarara tartean gazteak dauden multzoetan, gazterik ez dagoen multzoetan baino. Lehen zaharren presentziak bultzatzen zuen euskara erabiltzera. Orain gazteenak.

Itzulikatu egin dira joerak. Gazteek dakartzate euskara eta euskaltzaletasuna. Euskara zahartzaroarekin lotuta egon ondoren, orain gaztaroarekin.

Beste datu adierazgarri bat: gizasemeen eta emakumeen artean ez dagoela desberdintasun nabaririk erreparatzen euskara erabiltzearen orduan. Hau ere, gauza berria.

Hazkundearen erritmoa, halere, moteltzen hasi da. Aurrerago joan ahal izateko, erdara inposatzen duten erdaldun elebakarren multzoan egin behar da koska. Euskalduntze lanaren ordua da gaur inoiz baino garbikiago.

Ulergarria da, agian, erdaldun españolistak eta frantximentak behar hertsu honetaz ez konturatzea. Onartezina da, ordea, oraindik ere «abertzale» omen diren asko eta asko erdararen **inposaketa isil baina sendo eta suntsitzaile** hori ez ulertzea. Erdaldun hutsten % 77,5 hori gutxituko ez dugunok, euskararen normalizazioa ezina izango da.

Taulen irakurketa artatsuak ustekabe galantak ematen ditu. Ez denak onak, egia aitortzeko. Norberak bila eta aurki ditzala hauek eta haiek, eta ondorioak atera. Gu egin dugun bezala.

Datoak hor daude, ugari, zehatz, fidagarri. Non gauden hobeki dakigu. Eginetara orain.

Bigarren gai nagusia, **Xabier Isasi** irakaslearen eta **Arantxa Iriarte** ikaslearen eskutik, «Txillardegiren eredu matematikoari» dagokio.

Eta ez dakit nik egokiena ote den orrialde hauek, ezinbestean auto-defentsa narzizista kutsua hartuko lukeen erantzun luze batean, hemen aurkeztea.

Isasik eskubide osoa du (eskubide eskergarria, gainera) nire teoria bere irizpideen bidetik azaltzeko, osatzeko, berritzeko, are zenbait aldetatik gaintzeko edo ukatzeko ere.

Baina eztabaida hori bere osoan hemen ematea gehiegizkoa litzateke. Balizko eztabaida horri buruz, funtsezko ideia batzuk gogoratzea izan daiteke abiapuntu egokia.

Nire lehenengo hurbilpena, normala denez, «gizartearen hizkuntz isotropia» bataiatu nuena suposatzea izan zen. Alegia, hiztunen arteko harremanak inolako aurre-baldintzarik edo azpi-multzorik gabe gertatzen direla pentsatzea.

Fisikaren alorrean somatu nuen azterbide posiblea. Materiale isotropikoetan (argiari buruz, adibidez) norabide guztiak dira baliokideak.

Hipotesi honetan, erraza da formulazio matematikoa: «kutxatila»ren kasoaren aurrean gaude, «Probabilitatearen Teorian» oso erabilia. Lortzen diren formulak nire liburuan aurki ditzake irakurleak: «Soziolinguistika Matematikoa», 75-205 orr., UEU-EKB argit., Bilbo 1994. (Han esandakoa berriro gaur eta hemen errepikatzea ez litzaioke irakurleari oso aberasgarri gertatuko. Jo beza liburura).

Hiztun-bikoteek, hirukoteek eta laukoteek dauzkaten pisu estatistikoak ezagutuz gero (eta honen erantzuna enpirikoa da, eta behaketaz bakarrik erabakigarria), inkesta bidez ezagu dezakegun erabilpen orokorra ezaguturik; eta elebidunen proportzioa erroldaz edo bestez

ezagutuz gero, elebidunen leialtasun ertaina kalkula daiteke.

Honeraino, hortaz, gizartearen barne-egiturarik ez da aipatu ere egiten. Isotropia dago.

Garai hartan ez genuen multzoen maiztasun errelatiboa ezagutzen (sailkapen estatistikorik ez zegoen alde honetatik), eta pisuok gutxi gora-beherako estimazioen bidez hartu genituen aurrera egin ahal izateko (ikus **Bat 3/4**).

Muga horiek hor egonda ere, oso nabarmen agertu zitzaigun kalkulatu genuen leialtasunaren balioa altuegia zela normalean. Batez ere euskaldun gutxiko herrietan. Elebidunek beren artean, eta aukera posible zutenetan, beraz, euskara hautatzen zuten mintzabide beti (baita %100etan baino maizago ere!!).

Hamaika neurketa eta bir-neurketa egin ondoren, ondorioa garbi agertu zitzaigun: gizartean «anisotropia» zegoela hizkuntz harremanetan. Azpi-multzoen izatea **postulatu behar zen**.

Emitza enpirikoak ulertu baziren, A hizkuntzaren elebakar asko beren artean bizi zirela pentsatu behar zen, elebidunekiko hizkuntz harremanik gabe.

Edo, simetrikoki, nahiago bada, B hizkuntzaren hiztunak, beren artean mogitzen direla hein handi batez, A-ren hiztun elebakarrekiko harremanak murriztuz.

Birplanteatu egin behar izan nuen neure modelo matematikoa. Erdaldun huts batzuk euskal multzoarekin hizkuntz harremanik ez dutela postulatu behar zen, ekuazioak eta formulak birmoldatuz.

Hots, honetxek azaldu zituen emaitza enpirikoak. Behaketa hutsez, eta teoriaren mugen barruan, gizartearen **barne-egitura** soziolinguistikoa kalkula daiteke (anisotropiaren maila neurtzen duen «gizarterakuntza-tasa» horrela sortu zen).

Eta elebidunen hizkuntz jokabidea edo **hizkuntz leialtasuna ere** horrelaxe. Alegia, elebidunak beren artean daudenean, eta beraz, hizkuntzaren hautaketa beren esku duten kasuetan, euskara hautatzen duten multzoen proportzioa.

Isasi gure lankide eta adiskideak bere ikuspuntu eta azalpen pertsonal batzuk ere erantsi nahi izan ditu bere lanean. Hau esanda, besterik ez dut erantsi beharrik. Ereduan nirea izanik ere, gehigarri gisa emandako azalpen horiek bereak ditu.

Euskal Herriaren egoerari buruzko dato estatistiko pila batez horniturik, lan eskerga hau probetxagarri gertatuko da zalantzarik gabe euskal Soziolinguistikaren alorrean. Bilketa, prestaketa, eta azalpen lan honek euskaltzale guztien txaloea eta esker ona merezi ditu. Irakurleak dauka orain bere hitza funtsez emateko parada.